



PRENTSA OHARRA
2019/03/26

Gizarte Ekintza Sailak 35.000 ikuskapen eta kontrol jarduketa baino gehiago egin ebazan 2018an, eta oso ez betete maila txikia hauteman eban

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordera etorri da, Batzarretako talde bik eskatuta. Alde batetik, Arantza Urkaregik (EH Bildu) EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren Bizkaiko betete mailaren ganeko azalpenak eskatu deusaz, eta baita gizarte zerbitzuen zentroetan eta etxeko zainketa zerbitzuetan egin diran ikuskapen kopuruaren eta ondorioen ganeko datuak emon daizala be. Beste alde batetik, Podemos Bizkaiak, Eusko Jaurlaritzak egin dauen adinekoentzako egoitzei buruzko Dekretu barrian Gizarte Ekintzako Foru Sailak egin dituan ekarpenen ganean galdetuko deutso.

EH Bilduko Arantza Urkaregiri eta egindako ikuskapenen kopuruari eta emaitzari buruzko informazio eskariari erantzunez, Sánchez Roblese, bere Sailak 2018an aurrera eroandako datu asko ekarri ditu Batzordera. Adierazo dauenez, 35.000 baino gehiago izan dira –igaz baino 5.000 gehiago–, Gizarte arloko Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2017-2019 Plan Orokorra betez. Bizkaiko Gizarte Ekintzako Diputatuak, maiatzera arte aurkeztu behar ez ziran datu horreek, aitatutako Batzarretako taldearen eskariari erantzuteko aurreratu ditu.

Sánchez Roblese, gizarte arloko zerbitzuak ulertzeko moduan bilakaerea egon dala adierazo dau, arretan oinarritutako ikuspegitik norbanakoari zuzendutako ikuspegira. Ikuspegi horrek Zuzenbide Estaduaren zutabetzat hartzen ditu edozein herritarrek erabili daikezan gizarte arloko zerbitzuak, bizitzeko baldintza duinak bermatzeko. Testuinguru horretan, nabarmen egin dau gora Bizkaian, biztanle bakotxeko, zerbitzuetara eta prestazinoetara zuzendutako gastu publikoak. Holan, 2.000. urtean gastu hori 295 eurokoa izan zan, eta 2016an 1.110 eurokoa izan da.

Gizarte Ekintza arloko Aldundiko arduradun nagusiak zehaztu dauenez, ganera, 2018an gizarte zerbitzuetako zentroen %100 ikuskatu eta kontrolau zan, 392 zentro guztira (horreen artean dagoz gizarte zerbitzuen %100a, Arreta Goiztiarrera zuzendutako 50ak, eta Gizarteratze Zerbitzuan hitzarmendutako zentroen %25a). Horren emaitza moduan, 20 zentrotan 21 gertakari hauteman ziran, batez be, ume bakotxarentzat erreferentziatzeko persona bat ezarri beharra ez betetearen ondorioz. Diputatuak adierazo dauenez, gertakari horreetatik bat be ez da hauteman arreta goiztiarreko zentroetan.

Beste alde batetik, Gizarte Ekintza Sailak gizarte zentroetako 2.552 erabiltzaileri (horien artean, zentro okupazioaletara doazan 150) eskainitako arretaren eta zainketen kontrola egin dau, euren beharretarako egokia dan arreteja jasoten daben ala ez egiaztetako, eta ez da ezelangorazko azpimarragaririk hauteman.

Familia Inguruko Zainketetarako Prestazino Ekonomikoaren onuradun diran 4.504 personak etxean jasoten dituen zainketak be ikuskatu dira. Bizkaiko hartzaile guztietatik %25 izan ziran. Kontrol horreetatik 10 kasutan preminaz jardun behar izan da, zainzaileak eukan gaitzaren ondorioz, edo menpekotasuna edo gaixotasuna larriagoak ziranez beharrezkoak ziran zainketak emoteko gai ez zalako. Holan, menpekotasuna daukien persona horreetatik 8 egoitza batean ingesau dira, beste bat eguneko zentro batera joaten hasi da, eta azkenengo kasuan, jarraipenak sarritan egitea erabagi da. “Ez da tratu txarren kasu bakar bat be hauteman”, azpimarratu dau Sánchez Roblese.

Ganera, ikuskapenek, zaintzailea amore emoteko arriskuan egoan 35 kasu ekarri ditue argitara, eta horreetan zerbitzu gehiago proponidu dira, arreteak hobetzeko, edo egoitza batean ingresetea. Horrez gain, baldintzen 33 ez betete larri hauteman dira, ete horrek prestazinoa etetea eragin dau (11 kasu beste Autonomia erkidego batera joan izanaren barri ez emoteagaitik eta 12 kasutan ez dalako egiaztatu persona zaintzailea menpekotasuna daukan personagaz bizi dala). Kasu horreei, personakaz hartu-emonetan jarrea ezinezkoa izan diran beste 14 kasu gehitu behar jakez, gehienetan helbidea edo telefono zenbakia aldatu eta Sailari jakinarazo ez jakolako. Azken kasu horreetan prestazinoa kautelaz aldi baterako etetea erabagi da.

Ganera, gizarte arloko 27.932 prestazino aztertu dira (2017an baino %17,4 gehiago), hau da, etxeke prestazinoen %25 eta ganerako prestazinoen %100. Horreen emaitzak oraindino itxi barik dagoz. Modu berean, laguntza publikoak jasoten dituen eta Aldundiarenak ez diran gizarte arloko erakundeak be kontrolau dira. 19,4 milioi euroko zenbateko osoa ikuskatu da.

Datu gitxi batzuen faltan, Diputatuak adierazo dau zentroetako arazo kopuruak behera egin dauela (2017an 42 hauteman ziran, eta 2018an 21) eta etxeen %8,8an baino ez dala holangorik hauteman. “Errealidadeak erakusten deusku jazoera gitxi dagola, bolumen osoagaz alderatuta”, azpimarratu dau Sánchez Roblesek, eta “esan daikegu Bizkaiko gizarte zerbitzuetara zuzendutako finantzaketea ondo zuzenduta dagola, heldu behar jakonari heltzen jakola”, gehitu dau.

Betete mailaren ganeko azalpenak

Arantza Urkaregik (EH Bildu) EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak 2018ko urtarrilaren 1ean Bizkaian eukan betete mailaren ganeko azalpenak be eskatu deusaz Gizarte Ekintzako Diputatuari, eta zehatzago esanez, adinekoentzako eta menpekotasuna daukienentzako egoitzetako eta eguneko zentroetako plaza proiektzioaren estalduraren ganekoak.

Erantzun aurretik, Sánchez Roblesek aitaturako Plan hori proiektzioetan oinarritutako laneko tresnea dala adierazo dau, eta proiektzio horreek ez dirala beti aldatuz doan errealidadera egokitzen. Aurreikusitakoa kontuan izanda, adinekoen eguneko zentroetan 81 plaza behar dira (proiektutako 1.506akaz alderatuta). Horreen parte bat, Bilboko Marcelino Oreja kalean egongo dan Etxaniz eguneko zentroak eskainiko dituan 55 plaza barriakaz osatuko da.

Egoitzetan 6.169 plaza beharko zirala egoan aurreikusita, eta hori gaintu egin da, gaur egun 6.714 plaza dagozalako. “Dana dala, gaur egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko 10.000 plaza baino gehiago dagoz eregita”, adierazo dau Gizarte Ekintzako Diputatuak.

Arnasaldi zerbitzuari jagokonez, 70 plaza beharko zirala aurreikusten zan, eta horreetatik 63 bete dira. Familia inguruneko zainketetarako prestazino ekonomikoetan nabarmen gaintu dira proiektzioak, 15.000 onuradun baino gehiago dagozalako, aurreikuspenak 11.807 personakoak ziran arren. Gauza bera gertatu da laguntza teknikoetarako edo etxeetan egokitzen lanak egiteko banakako prestazinoakaz, 2018an holango 1.520 prestazino emon ziralako, aurreikusitako estaldurea 1.361 plazakoa zan arren.

“Mapak aurreikusitakoak baino 7.000 adineko gehiago dagoz sistemaren onurak jasoten, etxeetan eta egoitzatan, batez be”, adierazo dau Sánchez Roblesek, eta datuen bitartez, kasu gehienetan errealidadeak aurreikuspenak gaintu dituala azaldu dau, zentro okupazioaletako plazatan, garraio egokitan eta tutoretzapean dagozan adinbakoen eta helduen kopuruan, batez be.

“Sistema konplexua, bizia eta funtzionetan ari dana da, eta gaur egun Bizkaian 30.000 persona baino gehiagori erantzuten deuszen sistema batean oinarrituta aurrera egiteko ari gara beharrean”, esan dau Sánchez Roblesek, bukatzeko.

Diputatuak esandakoa entzun ostean, Urkaregik, EH Bilduren izenean, “aurreikusitako helburuak ez dirala lortu” esan dau, eta adierazo dau penagarria dala Bizkaiak Gizarte Zerbitzuen Maparik ez eukitea. “Gure ingurura begiratzen badogu, Araban badaukie, eta Gipuzkoan daborduko bi egin ditue”, gehitu dau.

Arturo Aldecoak (Talde Misto), bere aldetik, Gizarte Ekintza Sailaren beharra azpimarratu dau, eta “oso nota ona” emon deutso, baina aurrera egiteko bideari ez izteko eskatu deutso. Eneritz De Madariagak (Podemos Bizkaia) “datu horreek itxaron zerrendetako eta bete bako zerbitzuen eskarietako datuakaz lotzeko” eskatu dau.

Juan Oterminek (Euskal Sozialistak) “datuak aurreratzeko egin dan esfortzua” eskertu dau. Jon Sánchezek (Euzko Abertzaleak) “azalpen zabala eta zehatza” eskertu dau, eta balioan jarri ditu “Gizarte Ekintza Saileko profesionalen beharra eta dedikazinoa”.

Horren ostean, Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) Eusko Jaurlaritzak egin dauen adinekoentzako egoitzei buruzko Dekretu barrian Gizarte Ekintzako Foru Sailak egin dituan ekarpenen ganean egindako itaunari erantzun deutso Sánchez Roblesek. “Foru Aldundiak lehen momentutik hartu dau parte Dekretu hori egiteko beharrean”, azpimarratu dau Diputatuak, eta aho batez onetsi dan dekretuaren zirriborroak, betekizun horreek zentro guztiek bete behar dituela ezarten dauela esan dau, kontzertauak izan ala ez.

Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia), Dekretua “oso berandu” heldu dala esan dau, eta Sánchez Roblesi, eta Gasteizko Jaurlaritzak Aldundiari eskatutako arau barri horrek Bizkaian izango dauen eragin ekonomikoari buruzko txostenaren datuak emoteko eskatu jakonean, “horren ardurea Gasteizko Jaurlaritzarena dala erantzun izana” penagarria dala esan dau.

Eduardo Andrések Sánchez Roblesen azalpenak eskertu ditu, baina “oso gogoeta orokorrak” dirala esan dau, “Dekretuaren zain egon beharko gara” gehituz. Euskal Sozialistak taldeko Juan Oterminek, “Dekretua balorau ahal izateko bere eukiaren zain geratzen gara” adierazo dau.

“Gasteizek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu eutsan eragin ekonomikoari buruzko txostenaren barri jasoko genduala uste genduan”, esan dau Arantza Urkaregik (EH Bildu). Euzko Abertzaleak taldeko Celia Gómezek “hiru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, eta bertako talde teknikoek dekretua gauzatzeko egin daben lan handia” jarri dau balioan.

Proposamen biren bozketea

Horrez gain, Gizarte Ekintzako Batzordeak, Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatu eta bozkatu ditu, Josu Unanuek (EH Bildu) eta Neskutz Rodríguezek (Podemos Bizkaia) batera aurkeztutakoak. Lehenengoan, talde biek parte hartzeko eremu egonkorra sortzea eskatu dabe, Egoitzen Foru Sarean menpekotasun egoeran dagozan adinekoei emoten jakezan zerbitzuak garatzeko eta planifiketako. Eztabaidatuko dan Arauz Besteko bigarren Proposamenean, eskaria egin jako Foru Aldundiari, Barakaldon dagon Miranda Fundazioaren funtzionamentua bermatzeko eta zerbitzua hobetzeko eratu dan Lan Taldean parte hartze aktiboa euki daian.

Proposamen biak onetsi barik geratu dira. Lehenengoak proposamena aurkeztu daben talde bien, Podemosen eta EH Bilduren, eta Talde Mistoaren, aldeko botoak eta Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Popularra taldeen kontrakoak izan ditu. Bigarren proposamenak be ez dau aurrera egin, EH Bilduren eta Podemosen aldeko 5 boto eta ganerako taldeen kontrako 10 boto jaso ditualako. Bozketa horreekaz biakaz bukatu da Gizarte Ekintzako Batzordearen agintaldi honetako azkenengo bilerea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/03/2019

El Departamento de Acción Social realizó más de 35.000 actuaciones de inspección y control en 2018, detectando un porcentaje muy bajo de incumplimientos

Isabel Sánchez Robles, Diputada de Acción Social, ha comparecido hoy ante la Comisión correspondiente a petición de dos grupos junteros. Por un lado, EH Bildu le ha pedido explicaciones sobre el nivel de cumplimiento en Bizkaia del Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAV, así como sobre el número y las conclusiones de las inspecciones realizadas en los centros de servicios sociales y en los servicios de cuidados domiciliarios. Por otro lado, Podemos Bizkaia, le ha preguntado sobre las aportaciones que el Departamento Foral de Acción Social ha realizado al nuevo Decreto de centros residenciales para personas mayores del Gobierno Vasco.

En respuesta a Arantza Urkaregi, apoderada de EH Bildu, y a su petición de información sobre el número y resultado de las inspecciones realizadas, Sánchez Robles ha aportado gran cantidad de datos sobre las actuaciones de su Departamento en 2018, que ha cuantificado en más de 35.000, - 5.000 más que el año anterior-, en cumplimiento del Plan General 2017-2019 de Inspección y Control de los Servicios y Prestaciones Sociales. La Diputada de Acción Social de Bizkaia ha adelantado estos datos, que no tenían que presentarse hasta el próximo mes de mayo, para responder a la solicitud del citado grupo juntero.

Sánchez Robles ha constatado la evolución en la concepción de los servicios sociales que han pasado de una visión asistencialista a una visión individualista, que los considera un pilar del Estado de Derecho y susceptibles de ser utilizados por cualquier ciudadano o ciudadana para garantizar unas condiciones de vida digna. En este contexto, ha aumentado considerablemente el gasto público en servicios y prestaciones sociales por habitante en Bizkaia, pasando desde los 295 euros del año 2000 a los 1.110 euros invertidos en 2016.

La máxima responsable foral de Acción Social ha detallado además que en 2018 se inspeccionaron y controlaron un total de 392 centros, (entre ellos, están el 100% de los de servicios sociales, incluidos los 50 dedicados a Atención Temprana y el 25% de los centros convenidos del Servicio de Inclusión Social). Como resultado, se detectaron un total de 21 incidencias repartidas en 20 centros que se referían básicamente al incumplimiento de establecer una persona de referencia para cada niño o niña. La Diputada ha asegurado que ninguna de estas incidencias se ha detectado en centros de atención temprana.

Por otro lado, el Departamento de Acción Social ha realizado el control de atención y cuidados a un total de 2.552 personas usuarias de centros sociales (entre ellas, 150 que acuden a centros ocupacionales) para verificar que reciben la atención adecuada a sus necesidades, sin haberse detectado ninguna incidencia destacable.

También se han inspeccionado los cuidados que reciben 4.504 personas beneficiarias de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar, que representan el 25% de las receptoras de Bizkaia. Estos controles han detectado 10 casos en los que ha sido necesario actuar de urgencia debido a la sobrecarga de la persona cuidadora o a su incapacidad de proveer de los cuidados adecuados por al avance de la dependencia o enfermedad.

Así, 8 de estas personas dependientes han sido ingresadas en una residencia, otra ha comenzado a acudir a un centro de día y en el último caso, se ha acordado realizar seguimientos frecuentes. “En ningún caso se han detectado malos tratos”, ha subrayado Sánchez Robles.

Las inspecciones han sacado a la luz además 35 casos con riesgo de claudicación de la persona cuidadora en los que se han propuesto nuevos servicios para mejorar la atención o el ingreso en una residencia. Además, se han detectado 33 incumplimientos graves de las condiciones que han derivado en la suspensión de la prestación (11 casos por no haber informado del traslado a otra comunidad autónoma y 12 casos en los que no se ha acreditado la convivencia de la persona cuidadora con la persona dependiente). A éstos hay que añadir otros 14 casos que han dado lugar a la suspensión cautelar de la prestación por no haber podido contactar con las personas, en la mayoría de los casos, por cambio de domicilio o de teléfono no comunicados al Departamento.

También se han controlado 27.932 prestaciones sociales (17,4% más que en 2017), lo que supone el 25% de las prestaciones en el hogar y el 100% del resto de ellas, cuyos resultados aún están pendientes de cerrarse. Igualmente, se han controlado a las entidades de servicios sociales no forales que reciben ayudas públicas, habiéndose revisado un importe total de 19,4 millones de euros.

A falta de algunos datos, la Diputada ha señalado que las incidencias en los centros se han reducido (de 42 incidencias en 2017 a 21 en 2018) y que sólo se han detectado incidencias en el 8,8% de los hogares. “La realidad nos demuestra que las incidencias son pocas sobre el volumen total”, ha destacado Sánchez Robles, para añadir que “podemos afirmar que la financiación destinada a los servicios sociales de Bizkaia está bien destinada, llega a quien debe llegar”.

Cumplimiento de objetivos

Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha preguntado también a la Diputada de Acción Social sobre el nivel de cumplimiento de los objetivos del Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAV en Bizkaia a fecha de 1 de enero de 2018 y, en concreto, sobre la cobertura de la proyección de plazas en residencias y centros de día para personas mayores y dependientes.

Antes de responder, Sánchez Robles ha asegurado que el citado Plan es una herramienta de trabajo con proyecciones que no siempre se adecúan a la realidad cambiante. En centros de día de personas mayores, la realidad respecto a lo previsto arroja la necesidad de 81 plazas (sobre 1506 proyectadas) que se piensa en parte compensar con las 55 nuevas plazas que aportará el futuro centro de día Etxaniz en la bilbaína calle Marcelino Oreja.

En residencias, se había previsto la necesidad de 6.169 plazas que se ha superado pues han llegado actualmente a las 6.714 plazas. “En todo caso, hay más de 10.000 plazas construidas a disposición de la demanda presente y futura”, ha asegurado la Diputada de Acción Social.

Respecto al servicio de respiro, que proyectaba la necesidad de 70 plazas, se han cubierto 63. En prestaciones económicas para cuidados en el entorno familiar se han superado claramente las proyecciones, con más de 15.000 personas beneficiarias frente a las 11.807 previstas. Lo mismo ha ocurrido con las prestaciones individuales para ayudas técnicas o realización de adaptaciones en el hogar, pues en 2018 se concedieron 1.520 prestaciones de este tipo, cuando la cobertura proyectada era de 1.361.

“Tenemos 7.000 personas mayores más beneficiándose del sistema que lo previsto por el mapa, especialmente en el hogar y en centros residenciales”, ha destacado Sánchez Robles, quien ha explicado con datos que en la mayoría de los casos la realidad está superando a las previsiones como en el caso de las plazas en centros ocupacionales, el transporte adaptado y el número de menores y de personas adultas tuteladas.

“Este es un sistema complejo, vivo y en funcionamiento y trabajamos para avanzar sobre un sistema que hoy responde a más de 30.000 personas en Bizkaia”, ha concluido Sánchez Robles.

Tras escuchar su intervención, Urkaregi, en nombre de EH Bildu, ha asegurado que “no se han alcanzado los objetivos previstos” y ha lamentado que Bizkaia no cuenta con un Mapa de Servicios Sociales. “Si observamos en nuestro entorno, en Álava ya lo tienen y en Gipuzkoa ya han elaborado dos”, ha añadido.

Arturo Aldecoa (Grupo Mixto), por su parte, ha destacado la labor del Departamento de Acción Social al que ha puesto “una nota de notable” pero al que ha pedido que no deje de avanzar. Eneritz De Madariaga (Podemos Bizkaia) ha solicitado que “estos datos se enlacen con los datos de las listas de espera y de demandas de servicios no cubiertos”. Juan Otermin (Socialistas Vascos) ha agradecido “el esfuerzo de adelantar estos datos”. En el mismo sentido, Jon Sánchez (Nacionalistas Vascos) ha agradecido “su amplia y detallada exposición” y ha puesto en valor “el trabajo y la dedicación de los y las profesionales de Acción Social”.

A continuación, Sánchez Robles ha respondido también a la petición de Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) sobre las aportaciones que su Departamento ha realizado al Decreto de Centros residenciales para personas mayores del Gobierno Vasco. “La Diputación Foral de Bizkaia ha participado desde el primer momento en la elaboración de este Decreto”, ha asegurado la Diputada, quien ha destacado que el borrador, que ha sido aprobado por unanimidad, establece los requisitos que tienen que cumplir todos los centros, sean concertados o no.

Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha asegurado que el Decreto “llega muy tarde” y ha lamentado que cuando han pedido a Sánchez Robles que dé datos sobre el informe de impacto económico que tendrá esta nueva norma en Bizkaia y que fue pedido por el Gobierno de Gasteiz a la Diputación, “nos hayan contestado que eso es responsabilidad del Gobierno de Gasteiz”.

Eduardo Andrés ha agradecido las explicaciones de Sánchez Robles, que ha calificado de “reflexiones muy generales”, para añadir que “habrá que esperar al decreto”. Juan Otermin, juntero de Socialistas Vascos, ha señalado que “quedamos pendientes del contenido del Decreto para poder valorarlo”.

“Esperábamos conocer el informe de impacto económico que pidió Gasteiz a la Diputación de Bizkaia”, ha lamentado Arantza Urkaregi (EH Bildu). Celia Gómez, juntera de Nacionalistas Vascos, ha puesto en valor el “trabajo intenso de las tres Diputaciones y del Gobierno Vasco y de sus equipos técnicos” en la elaboración del decreto.

Votación de dos proposiciones

La Comisión de Acción Social ha debatido y votado además dos Proposiciones No de Norma, presentadas conjuntamente por Josu Unanue (EH Bildu) y Neskutz Rodríguez (Podemos Bizkaia). En la primera de ellas, ambos grupos han pedido instar a la Diputación a la creación de un espacio estable de participación con el objetivo de desarrollar y planificar los servicios a personas mayores en situación de dependencia de la Red Foral de Residencias. En la segunda PNN a debate, se ha solicitado al ente foral a que participe activamente en el Grupo de Trabajo constituido para garantizar el funcionamiento y mejorar el servicio de la residencia de la Fundación Miranda de Barakaldo.

Ambas propuestas han sido rechazadas. La primera ha contado con los votos favorables de los dos grupos proponentes, Podemos y EH Bildu, y del Grupo Mixto y los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular. La segunda proposición tampoco ha salido adelante al sumar los 5 votos positivos de EH Bildu y Podemos, frente a los 10 votos contrarios del resto de los grupos. Con estas dos votaciones ha terminado la última reunión de la Comisión de Acción Social de esta legislatura.